

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak 3,3 milioi euro eman ditu 69 udal plan orokor garatzeko

Diru-laguntzek lurraldearen antolamendurako bitarteko horien kostuaren % 80 finantzatuko dute

Lunes, 20 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak 69 udal plan orokorretarako diru-laguntzak ordaintzeko egutegiaren egokitzapena onetsi du gaur. Egokitzapen horri esker, udalerriek 3,3 milioi euro jasoko dituzte guztira, hiru urtetan banatuta: 463.459 euro 2011n, 2.028.878 euro 2012an eta 839.701 euro 2013an.

Jarduera horren xedea ordainketa plan bakoitzaren garapenera egokitzea da, izan ere, plan horietan lanak burutzeko aurreikusitako epeak alda daitezke hainbat arrazoi medio.

Diru-laguntza jasoko duten udalerriak: Ablitas, Allin, Antsoain, Araitz, Añorbe, Arbizu, Arruazu, Artaxoa, Bargota, Barillas, Baztan, Beintza Labaien, Beraskoain, Betelu, Auritz, Burlata, Cabanillas, Cárcar, Castejón, Cintruénigo, Ziritza, Corella, Cortes, Etxarri, Eneritz, Esteribar, Etaiu, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Fustiñana, Galar, Garinoain, Irañeta, Izaba eta Lakuntza.

Baita honako udalerrri hauek ere: Larraga, Elizagorria, Longida, Milagro, Mirafuentes, Miranda Arga, Muruzabal, Nabaskoze, Oiz, Olaibar, Olexoa, Orisoain, Pitillas, Santakara, Doneztebe, Soslada, Tafalla, Torralba del Río, Torres del Río, Tuter, Tulebras, Uharte Arakil, Untzitibar, Untzue, Urdiain, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Urrotz, Uztarroze, Alesbes, Deierri, Esa eta Ziordia.

Gogorarazi behar da Nafarroako Gobernuak, 145/2002 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, udal plan orokorrak egitearen gastua ere ordaintzen laguntzen duela, diru-laguntzaren % 80ren bidez.